

Bistan dago ikastetxe gehienetako jolastokiek, eta gurea ez da salbuespena, oso egitura antzekoa dutela: futbola eta saskibaloia erdigunean daudela, gainerako espazioak urriak, nortasun eta baliabide gabekoak dira, goxo egoteko aukerarik ez dute ematen eta kirol-zelaiei begira daude. Alegia, ikasleen beharrak ez dira espazioen antolaketaren ardatza. Egitura horrek eragina dauka gaztetxoengan. Baina, espazioak berrantolatzeaz gainera, espazioetan ematen diren erabilerak harremanetarako eta jolasgunea eraldatzeko gako ere izan daitezke, eta honi etekina ateratzen saiatuko gara.

3. Diagnostikoa eta identifikatutako beharrak

Espazioaren diagnostikoa egiteko

espazioaren sektorizazio eta segregazioari erreparatu diogu behaketa baten bidez.

Jolasguneako sektore ezberdinetan ematen diren aktibitateen eta espazioa beraren

maskulinizazio eta feminizazioari buruzko informazioa bildu dugu. Horrela,

behaketa honek jolasguneako sektore ezberdinetan dominazio maskulino eta

femeninoa ematen ote den eta hau, garatzen diren aktibitate motarekin

erlazionatua ote dagoen ikusi ahal izango dugu.

4. Helburuak

•

Urola ikastola BHIIn jolastokia ikasle

guztientzat espazio atsegin, hezitzaile eta inklusibo bat bihurtzea, non

bizikidetzara arauak errespetatzen diren berdintasunari eta aniztasunari lekua

emanez, kalitatezko harremanak eta esperientziak izatera eta sedentariismoa

murriztera bultzatzen duen espazio bat sortuz, ikasle, irakasle,

guraso eta zentroko beste langileekin elkarlanean.

•

Gaztetxoen

beharrak aseko dituen jolasgunearen inguruko eztabaida ematea.

•

Espazioen

erabilera eta antolaketa desorekatuek eta sexistek haurren garapenean duten

eragina gutxitzea.

•

Patioaren eta

jolasgunearen azterketa kritikoa egitea.

•

Ikuspegi

hezkidetzaille, parte-hartzaile eta eraldatzaitetik patioak berrikustea.

•

Jolasguneetan

genero-aniztasuna eta parekidetasuna sustatzeko estrategiak lantzea.

•

Espazioak

erraz moldatzeko eta dibertsifikatzeko moduak aztertu eta planteatzea.

•

Egungo

jolastokiaren antolaketaren emaitzak ebaluatu eta aurrera begirako hobetzeko

aukerak identifikatzea.

-

Jolasguneen

eraldaketarako baliabideak garatzea.

-

Hezkuntza-komunitatean

egoeraren kontzientzia sortzea eta aldaketen inguruan adostasun sendoa lortzea.

5. Konpetentziak

Jolastokiaren berrantolaketa

ikasleekin batera egingo da, berauei galdetuz, beraien hitza kontutan hartuz eta beraien beharrei erreparatuz. Txoko ezberdinetan banatuko da patioa, txoko bakoitzean jarduera fisiko mota ezberdin bat egiteko aukera izango dutelarik, ekintza domeinuetan oinarriturik, baita sormenerako espazio bat ere. Honela ikasle guztiek gustuko duen jardueraren bat edukiko duen txokoren bat edukitzea berrmatuko dugu, bertan bere afizio antzekoak dituzten pertsonekin elkartzeko aukera izango dutelarik. Txoko hauek finkoak izango dira, baina ikasleak libreki ibili ahal izango dira txoko hauetatik. Txoko ezberdinen proposamenak egiterako orduan bereziki erreparatuko diogu gaur egun patioko leku marginaletan edo periferikoetan biltzen direnen beharrei.

Jolas ordu bakoitzean dagokion guneetara materiala eramateko ikasle arduradunak jarriko ditugu, errotazio sistema baten bitartez, ikasle guztiak pasako direlarik arduradun paperretik.

Honela zeharkako konpetentzia hauek lantzeko aukera izango dugu. Horiz azpimarraturik landuko den zeharkako konpetentzia aurkituko dugu, azpian landuko den osagaia eta honen barnean maila bakoitzeko exigentzia maila:

-

C : ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA:

C.4.

Arauk betetzea:

1. MAILA:

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezagutzen ditu, baita ikastetxeko AJA-ren puntu nagusiak ere. Gelako

eta jolas orduko oinarriko elkarbizitza araudiaren osaketan parte hartzen du.

2. MAILA: Gelako eta jolas orduko elkarbizitza

araudiaren osaketan parte hartzen du baita neurri hauek bete ezean jaso ditzaketen neurri zuzentzaileen deskripzioan ere.

C.5. Gizartearen hobekuntza

inplikazioa

1. MAILA: Gelan eta bere ingurune

hurbilean talde bezala gauzak egiteko orduan dauden ohitura eta egiteko eren ondorioz taldekide batzuek jasaten dituzten genero indarkeria, arazo, diskriminazio eta beharretaz ohartzen da.

2. MAILA: Gelan eta bere

ingurune hurbilean talde bezala gauzak egiteko orduan dauden ohitura eta egiteko eren ondorioz taldekide batzuek jasaten dituzten genero indarkeria, arazo, diskriminazio eta beharretaz ohartzen da, kritikoa da egoerarekin eta konponketan parte hartzen du.

C.6. Gatazkak elkarriketaren

eta negoziazioaren bidez konpontzen ikastea. Gatazkaren eraldaketa baketsua.

1.MAILA: Gatazkaren aurrean bere

emozioak, erreakzioak eta estrategiak ezagutzen ditu, eta eztabaida baten aurrean hausnartzeko, hitz egiteko eta entzuteko gai da.

2.MAILA: Alde ezberdinetako **ikuspegiak**

hartzten daki, **besteen**

arrazoiak adi entzuten ditu, beste aldeak arrazoiak izan dezakeela onartzen du.

•

D EKIMENERAKO ETA EKINTZAILETZARAKO KONPETENTZIA.

D.1. eta D.2. Ideiak eta proiektuak sortzea

1. MAILA: Ikasturteari eta gelari dagozkien proiektu hezitzaileen garapenean eta hobekuntzan parte hartzen du.

2. MAILA: Ikastetxeari dagozkion proiektu hezitzaileen garapenean eta hobekuntzan parte hartzen du.

D.3. Ekintzen planifikazioa, gauzatzea eta hauen doitzea

1. MAILA Proiektu eta jardueratan planteatutako eginkizunak, erantzukizunak eta denborak kontrolatzen ditu era gidatuan.

2. MAILA Proiektu eta jardueratan planteatutako eginkizunak, erantzukizunak eta denborak kontrolatzen ditu autonomoki.

•

E NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA.

E.3. Portaera sozial eta moralaren autorregulazioa

1.

MAILA: Gelakideekin harremanetean aniztasuna onartzen du kolektibo zehatzekin lotutako estereotipoak (sexua, generoa, arraza, klase soziala, identitate sexuala...) eta genero indarkeria gaitsetziz, eta sentsibilitatea eta enpatia erakusten ditu laguntza behar dutenekiko.

2. MAILA:

Gelakideekin harremanetean aniztasuna onartzen du kolektibo zehatzekin lotutako estereotipoak (sexua, arraza, klase soziala, identitate sexuala...) eta genero indarkeria gaitsetziz, eta sentsibilitatea eta enpatia erakusten ditu laguntza behar dutenekiko, gainera kritiko izateko gai da desorekak

garapen ekonomia eta ahalduak

1. MAILA: Norberaren zaintzan

ezinbestekoak diren ardurez jabetzea eta betetzea: Etxeko, gelako eta ikastetxeko zaintza ardurak, norberaren garbitasunaren garrantzia identifikatzea, kontsumo eta jarduera fisiko ohiturak bere buruarengan eta inguruarengan duen eraginaz jabetzea, harremanetzeko eredu osasuntsuak ezagutzea...

2.MAILA:

Elkarrenganako zaintzan ezinbestekoak diren ardurez jabetzea eta inplikatzeari:
Etxekoen, lagunen eta gelakideen
ongizatean eta zaintza arduretan; erabilera publikoko materialen eta ikastetxeko
espazioen zaintzan...

Contacto

Santi Elias Aizpuru - 639959025 - zutoin@urola.eus

Fecha de última actualización del recurso

20/04/2022

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Calle Perdillegi 3 20730 Azpeitia Azpeitia Gipuzkoa Euskadi España



Página web del proyecto

Imagen del Recurso

